*Foru Aginduak*

## TOKI ADMINISTRAZIOAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

**1091**

**25/2009 FORU AGINDUA, otsailaren 4koa. Honen bidez behin betiko onartzen da Manzanosko R-18/S plan partzila aldatzeko espedientea, zuzkidura azpizonei dagokienez.**

I.- AURREKARIAK

Lehenengoa.- Erribera Beitiko Udalak hasierako onarpena ematea erabaki zuen Manzanosko R-18/S plan partzila aldatzeko espedienteari, 2008ko urriaren 15ean, baita hogei egun jendaurrean jartzeari ere, eta horretarako iragarki bana jarri zen 2008ko urriaren 31ko ALHAOn (125 alea), 2008ko azaroaren 5eko Correon eta udaletxeko iragarki taulan.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean egon zen bitartean, ez zen ezelako alegaziorik aurkeztu, eta udalbatzak 2008ko abenduaren 3an egindako osoko bilkuran, behin-behineko onarpena eman zion espedienteari, eta Arabako Foru Aldundira igorri zuen, behin betiko onarpena eman ziezaioten. Espedienteari 2008ko abenduaren 5ean eman zitzaion sarrera foru aldundian.

II.- OINARRIAK

Lehenengoa.- Espediente honen xedea R-18/S sektorearen tokiko zuzkidura azpizonen antolamendu xehekatua aldatzea da; izan ere, Hirigintza eta Ingurumen Saileko diputatuak 2007ko ekainaren 30ean emandako 459 Foru Aginduaren bidez onartu zen plan partziala.

Aldaketak eragina du hezkuntza zuzkidurako azpizonetan eta ekipamendu generikoan.

Bigarrena.- Kontuan izanda herrian hezkuntza ekipamenduko beharrizanak betetzen direla Rivabellosako Unamunzaga Lehen Hezkuntzako Ikastetxeari esker, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak udalari igorritako idazkian agertu bezala. Egin-eginean ere, udalaren iritziz, komenigarria da lehen aipatutako azpizonan arau subsidioarioen “Dotazioak eta ekipamendua” 66. artikuluan adierazitako edozein erabilerari baimena ematea Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/06 Legearen 105.6. artikuluan jasotakoarekin bat etorrita.

Halaber, espedienteak eraikigarritasun fisiko gordinaren, gehieneko okupazioaren eta eraikinen eta araudiaren 11. artikuluan xedatutako zuzkidura azpizona publikoen arteko distantzien parametroak aldatzen ditu.

Azaldutako aldaketa guztiak antolamendu xehekatuaren xedapenei dagozkie.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak baliatuz, hauxe

XEDATU DUT:

Lehenengoa.- Behin betiko onartzea Manzanosko R-18/S plan partzila aldatzeko espedientea, udalak sustatu eta izapidetutako espedientea.

Bigarrena.- Honako foru agindu hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Hirugarrena.- Erabaki honek administrazio bidea amaitzen du. Beraz, interesdunek, egoki iritzi eta abiaraz dezaketen beste edozein neurriz gain, ondoko errekurtsoak aurkeztu ahal izango dituzte:

a) Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako, bi hilabete izango dira, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

b) Aukeran, eta aipatutako errekurtsoa jarri aurretik, berraztertzeko errekurtsoa ebazpena eman duen organoaren aurrean.

*Órdenes Forales*

## DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN LOCAL Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

**1091**

**ORDEN FORAL 25/2009, de 4 de febrero, de aprobación definitiva del expediente de modificación del Plan Parcial R-18/S de Manzanos, referente a las subzonas dotacionales.**

I.- ANTECEDENTES

Primero.- Con fecha 15 de octubre de 2008 el Ayuntamiento de Ribera Baja acordó aprobar inicialmente el expediente de modificación del Plan Parcial R-18/S de Manzanos, así como someter el mismo, a información pública por el plazo de veinte días, hecho que fue practicado mediante anuncios en el BOTHA núm. 125, de 31 de octubre de 2008, en el Correo de 5 de noviembre de 2008 y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

Segundo.- Durante el periodo de información pública no fue presentada ninguna alegación, procediendo el Ayuntamiento pleno, en sesión del día 3 de diciembre de 2008, a aprobar provisionalmente el expediente y remitirlo a la Diputación Foral de Álava para su aprobación definitiva, donde tuvo entrada el día 5 de diciembre de 2008.

II.- FUNDAMENTOS

Primero.- El presente expediente tiene por objeto la modificación de la ordenación pormenorizada de las subzonas dotacionales de carácter local del Sector R-18/S cuyo plan parcial fue aprobado mediante la Orden Foral 459, de 30 de junio de 2007, del Diputado de Urbanismo y Medio Ambiente.

La alteración que se plantea afecta concretamente a las subzonas de equipamiento docente y equipamiento genérico.

Segundo.- Dado que las necesidades de equipamiento docente de la localidad quedan satisfechas con el C.E.P. Unamunzaga de Rivabellosa, tal y como se manifiesta en el escrito enviado al Ayuntamiento por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación, esa administración municipal considera conveniente autorizar, al amparo del artículo 105.6 de la Ley 2/06 de Suelo y Urbanismo, en la mencionada subzona cualquiera de los indicados en el artículo 66 “Dotacional y Equipamiento”, de las Normas Subsidiarias.

Además el expediente modifica los parámetros de edificabilidad física bruta, ocupación máxima y separación de la edificación a los viales referentes a las subzonas dotacionales públicas reguladas en el artículo 11 de la normativa.

Todas las alteraciones descritas constituyen determinaciones de ordenación pormenorizada.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO:

Primero.- Aprobar definitivamente el expediente de modificación del Plan Parcial R-18/S de Manzanos, referente a las subzonas dotacionales, promovido y tramitado por el Ayuntamiento del citado municipio.

Segundo.- Publicar la presente resolución en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava.

Tercero.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrán interponer los particulares cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que se estime procedente:

a) Directamente, el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente, y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición ante el mismo órgano que ha dictado la reso-

Horretarako, hilabete izango da, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko otsailaren 4a.– Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua, ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE.

**11. ORDENANTZA.- ERABILERA ETA JABARI PUBLIKOKO LURRAREN ERAIKIGARRITASUNA**

BERDEGUNEAK ETA HAURRENTZAKO JOLAS ETA AISIRAKO TOKIAK

- Azalera: 3.812,35 m$^2$
- Onartutako erabilerak: Aisia eta atsedena
- Baimendutako eraikinak: musika kioskoak, pergolak eta abar.
- Gehienezko altuera: 3 m.
- Onartutako erabilerak: haurrentzako jolastokia
-Baimendutako instalazioak: atari zabaleko jokoak (zabuak)

EKIPAMENDU AREA

- Azalera: 4.755,15 m$^2$
- Onartutako erabilerak: Zuzkidurak eta ekipamenduak
- Gehienezko okupazioa: gainerako hirigintza baldintzen ondoriozko gehieneko mugapenen ondoriozkoa: bideetarainoko edo mugetarainoko gutxieneko tartea.

Lurrazalean gehienez eraiki daitekeena: gainerako hirigintza baldintzen ondoriozko gehieneko mugapenen ondoriozkoa: gehieneko okupazioa, sestraren gaineko gehieneko solairu kopurua eta bideetarainoko edo mugetarainoko gutxieneko tartea.

- Hegalkinerainoko gehienezko altuera: 8 m.
- Gehienezko solairu-kopurua, sestraren gainetik: B+1
- Gutxienezko metroak bideetara: gutxieneko atzeragunea egitea ezarri da lurzatiaren lerrokadura ofizialetik. Hegaden dimentsioak, lerrokadura ofizialetatik, Erribera Beitiko udal planeamenduko arau subsidiarioetan agertutakoarekin bat eginda ezarriko dira.

- Gutxieneko metroak mugetara: 3 m.

## TOKI ADMINISTRAZIOAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

**1155**

**44/2009 FORU AGINDUA, otsailaren 10ekoa, Planeamenduko Arau Subsidiarioen indarreko agirian Laguardiako 5 poligonoko 431 eta 1565 zenbakietako lurzatien kalifikazioan antzemandako akats materiala zuzentzekoa.**

I.- AURREKARIAK

Lehenengoa. Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean 2009ko abenduaren 9ko sarrera data duen idazkiaren bidez, Laguardiako Udalak espedientea igorri du akats materiala zuzentzeko, Laguardiako indarreko planeamenduko arau subsidiarioen 5. poligonoko 431 eta 1565 lurzatien kalifikazioan.

Bigarrena. Udalak esana du lehen aipatutako lurzatien kalifikazioa Herrilan eta Garraio Saileko foru diputatuaren martxoaren 8ko 62/1990 Foru Aginduaren bidez aldarazi zela, beraz, lurzatiok nekazaritzarako balio bereziko babeserako zonaren kalifikazioa hartu dute. Hala ere, kalifikazio hori ez da kontuan hartu arauak berraztertzeko agirian, beraz, akats materiala zuzendu behar da.

II.- OINARRIAK

Lehenengoa.- Herri Administrazioen Lege Araubidearen eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 105.2. artikuluak hauxe xedatzen du:

“Administrazio Publikoek edonoiz, ofizioz edo interesdunek eskatuta, bere egintzetan ageri diren akats materialak, egitatezkoak edo akats aritmetikoak zuzendu ahal izango dituzte”.

lución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Vitoria-Gasteiz, 4 de febrero de 2009.– El Diputado de Administración Local y Equilibrio Territorial, ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE.

**ORDENANZA 11ª. EDIFICABILIDAD DEL SUELO DE DOMINIO Y USO PÚBLICO**

ZONAS VERDES Y DE JUEGO/RECREO DE NIÑOS

- Superficie: 3.812,35 m$^2$
- Usos permitidos: Recreativo-Esparcimiento
- Construcciones permitidas: Kioscos de música, pérgolas, etc.
- Altura máxima: 3 m.
- Usos permitidos: Uso lúdico-infantil
- Instalaciones permitidas: Juego al aire libre (columpios)

ÁREA DE EQUIPAMIENTO

- Superficie: 4.755,15 m$^2$
- Usos permitidos: Dotacional y Equipamiento
- Ocupación máxima: la resultante de las limitaciones máximas que resulten del resto de condicionantes urbanísticos: separaciones mínimas a viales y linderos.
- Edificabilidad máxima en superficie: la resultante de las limitaciones máximas que resulten del resto de condicionantes urbanísticos: ocupación máxima, nº máximo de plantas sobre rasante y separaciones mínimas a viales y linderos.
- Altura máxima al alero: 8 m.
- Nº Máximo de plantas sobre rasante: B+1
- Separación mínima a viales: no se establece retranqueo mínimo respecto a la alineación oficial de la parcela. Las dimensiones de los cuerpos volados respecto de la alineación oficial se atendrán a lo dictado en las Normas Subsidiarias de Planeamiento del Municipio de Ribera Baja.
- Separación mínima a linderos: 3 m.

## DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN LOCAL Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

**1155**

**ORDEN FORAL 44/2009, de 10 de febrero, de rectificación del error material advertido en la calificación de las parcelas números 431 y 1565, polígono 5 de Laguardia, del vigente documento de Normas Subsidiarias de Planeamiento.**

I.- ANTECEDENTES

Primero. Mediante escrito, con fecha de entrada en el Registro General de la Diputación Foral de Álava del día 9 de diciembre de 2008, el Ayuntamiento de Laguardia remite expediente de rectificación del error material advertido en la calificación de las parcelas números 431 y 1565 del polígono 5, de Laguardia, en el vigente documento de Normas Subsidiarias de Planeamiento.

Segundo. Señala el Ayuntamiento que la calificación de las parcelas arriba citadas fue modificada mediante Orden Foral número 62/1990, de 8 de marzo, del Diputado de Urbanismo y Arquitectura, pasando a ser incluidas dentro de la zona protegida de especial valor agrícola. Sin embargo, dicha calificación no ha sido tenida en cuenta en el documento de revisión de las Normas por lo que procede la subsanación del error material.

II.- FUNDAMENTOS

Primero.- Dispone el artículo 105.2 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, que:

“Las Administraciones Públicas podrán asimismo, rectificar en cualquier momento, de oficio o a instancia de los interesados, los errores materiales, de hecho aritméticos existentes en sus actos”.